

2025-2027

# DONOSTIA GAZTERIAKO PLANA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Gazteria

# AURKIBIDEA

---

1. SARRERA.....	3
2. PLANAREN EZAUGARRIAK.....	4
3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	5
4. EMAITZA: PLANA.....	7
a. Misioa, bisioa eta balioak.....	7
b. Ekintza-plana.....	9
c. Erronkak.....	10
d. Ebaluazioa.....	20

# 1 SARRERA

Donostiako Udaleko Gazteria Sailak, 0-30 urte bitarteko donostiarrei, euren interes eta beharretatik abiatuta eta euren eskubideen sustapenean eta defentsan bidelagun izanik, haur, nerabe eta gazteen bizitza-ziklora egokitutako eta pertsonaren autonomiaren garapenean lagunduko duen funtsezko eta erreferentziazko bidelagun eta laguntzaile gisa irudikatzen du bere burua.

Haur, nerabe eta gazteekiko tratu onaren politika garatzea izango da plan honen lehentasuna. Zerbitzuak eta programak garatzen ditugun gune guztiak ingurune seguru bilakatzeko helburua dugu eta zeregin horretan jardungo gara.

2025-2027 planean politika hau integratuko dugu, tokiko haurren, nerabeen eta gazteen parte hartzea, sentsibilizazioa, prebentzioa eta babesa sustatzera bideratutako helburu eta ekintzekin. Eta programak eta jarduerak garatzeko gune guztietan ingurune seguruak sortzera bideratutako helburu eta ekintzekin, horretarako estrategia eta metodologia parte-hartzaileak erabiliz.

Donostiako haur, nerabe eta gazteei euren bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragingo duten sustapen-politikak garatzeko orduan, gainera, Gazteriak Sailak lehentasunezko ikusten du haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu behar dela. Eta horretarako, Donostiako Udaleko beste sail eta erakundeekin eta haur, nerabe eta gazteen alorrean diharduten beste eragileekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea lehenesten da.

Era berean, Gazteria Sailak ezinbesteko ikusten du Donostiako haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik planaren definizioan subjektu aktibo izan behar direla.

Testuinguru honetan garatu da Gazteria Saileko 2025-2027 plana.

## 2 EZAUGARRIAK

Plan hau bitarteko plan gisa planteatzen da, 2021-2024 Plan Estrategikoaren ildo nagusiak luzatzeko eta Ekintza Plana eguneratzeko.

Gazteriako bitarteko planak bi plan estrategiko zabalagoren arteko zubi gisa jardungo du, lehentasunezko ekintzak ez direla geldituko eta berehalako premiei erantzungo zaiela ziurtatuz.

Helburua iraupen luzeagoko ikuspegi baterantz planifikatutako trantsizioa da, erakundea epe luzerako helburuetan oinarrituta mantenduz, eta, aldi berean, ingurune aldakor batera egokituz.

Planak honako ezaugarri hauek ditu:

- **Plan estrategikoak garrantzitsua izaten jarraituko du:** plan estrategikoaren epe luzerako ikuspegiak eta helburuek baliozkoak izaten jarraitzen dute, eta erakundearen egungo eta etorkizuneko egoerarekin lerrotatuta daude; ez da beharrezkoa erabat baztertzea.
- **Iraupen mugatua.** Plan honek, epe luzerako plan estrategikoek baino iraupen laburragoa du.
- **Malgutasuna:** plan honek aukera ematen du ekintzak egoera berrietara egokitzeko, plan estrategikoak garrantzitsua izaten jarraituko duela bermatuz.
- **Jarraipena eta koherentzia:** ezarritako norabide estrategikoari eusten zaio
- **Eraginkortasuna:** Epe laburrean plan estrategiko berri bat egiteari lotutako kostuak eta denbora saihesten dira, lehentasunezko ekintzekin jarraitzen da, berehalako beharrei heltzen zaie eta hurrengo plan estrategikorako eremua prestatzen da.
- **Parte-hartzea eta feedbacka:** aukera ematen du gazteek berrikusteko eta eguneratzeko prozesuan inplikatzeko, eta horrek indartu egiten du epe luzerako planaren legitimitatea eta garrantzia.
- **Ebaluazioa eta doikuntza:** Bitarteko plana denez, funtzionatu duenaren eta ez duenaren ebaluazio zehatzagoa egiteko aukera ematen du, epe luzerako plan sendo eta eraginkorrago baterako doikuntzak erraztuz.
- **Etorkizunerako prestakuntza:** Epe luzeko hurrengo plan estrategikorako oinarriak ezartzen ditu, etengabeko trantsizioa ziurtatuz eta strategiaren jarraikortasunean hausturak saihestuz.

## 3 PROZESUAREN DESKRIBAPENA

### 3.1 Abiatzea + Diagnostikoa

#### 2021-2024 plan estrategikoaren ebaluazioa

- 2025-2027 planaren lanketa, aurreko 2021-2024 planaren ebaluazioa aztertzen hasi genuen. Aurreko Gazteriaren plan estrategikoaren lorpenak, arrakastak eta erronkak aztertzen ditu. Zein helburu lortu ziren eta zein geratu ziren betetzeke

#### Datuen analisia:

Datu demografikoak, enpleguari, hezkuntzari, gazteen osasunari, parte-hartze sozialari eta beste edozein informazio garrantzitsuri buruzko estatistikak eguneratzea.

#### Galdetegiak:

- 2024ko udaberrian - udal osora bideratu genuen haur, nerabe eta gazteen sustapenari buruzko inkesta. 115 pertsonak bete zuten.

- 2025eko urtarrilean -

Gazteei bideratutako inkesta – 51 erantzun

Gurasoei bideratutako inkesta – 267 erantzun

Gurekin lanean dauden eragileei zuzenduriko inkesta – 53 erantzun

- 2025eko otsailean -

Ekialde Barrutiko haurren parte hartze organoarekin plan estrategikoari buruzko lan saioa.

Eta hurrek erantzundako inkesta – 151 erantzun

## 3.2 Hausnarketa + Garapena

Testuinguru honetan, Gazteria Sailaren 2021-2024 plan estrategikoaren ebaluazioa oinarri hartuta eta galdetegi ezberdinetako ekarpenak aztertuta, Gazteria Sailaren 2025-2027 urteetarako tarteko plana definitzeari ekin genion.

Hausnarketa eta garapen fase hau, Gazteria lan taldean burutu dugu.

Gazteria Sailaren misioa, bisioa eta balioak definitu ditugu, hurrengo hiru urteetarako erronkak identifikatzearekin batera. Aurreko plan estrategikoa oinarri hartuta.

Bildutako gogoetak eta ekarpenak aintzat hartuta, planaren lehen proposamena landu dugu.

Bost hausnarketa-saio izan dira eta hauen helburua, adierazi bezala, Gazteria Sailaren hurrengo urteetarako identifikatutako erronkak erantzuteko proposatutako helburu estrategikoak, lan-ildoak eta ekintzak osatzea, gehitzea, kentzea. izan da.

Plana osatzeko, zerbitzuetako koordinatzaile eta hezitzaileekin partekatu da.

## 3.3 Itxiera

Prozesuari itxiera emateko, Gazteria Sailaren 2025-2027 planaren behin-betiko proposamena esku artean izatera iritsi gara.

## 4 EMAITZA: PLANA

Donostiako Udaleko Gazteria Saileko planak 3 urteko iraupena izango du, 2025 eta 2027 urteen bitartean.

### 4.1 Misioa, bisioa eta balioak

**Misioa:** Donostiako haur, nerabe eta gazte guztien eskubideak bermatzea / errespetatzea eta bultzatzea eta euren bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragingo duten sustapen-politikak garatzea, elkarlanetik eta arduratik haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatuz.

**Misioa:** Hiriko haur, nerabe eta gazteen interes eta beharretatik abiatuta eta euren eskubideen sustapenean eta defentsan bidelagun izanik, euren bizitza-ziklora egokitutako eta pertsonaren autonomiaren garapenean lagunduko duen funtsezko eta erreferentziazko zerbitzua eskainiko dugu. Haur, nerabe eta gazteekiko tratu onaren politika garatuko dugu, zerbitzuak eta programak garatzen ditugun guneguztiak ingurune seguru bilakatzeko helburuarekin.

**Balioak:**

<b>Konfiantza eta hurbiltasuna</b>	Konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritutako harremanak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu.
<b>Tratu ona</b>	Tratu onaren kultura sustatzen dugu.
<b>Profesionaltasuna</b>	Profesionaltasunez eta erantzukizunez jarduten dugu haur, nerabe eta gazteen sustapenean.
<b>Motibazioa</b>	Gure egitekoan sinesten dugu, ilusioz eta motibazioz egiten dugu lan.
<b>Elkarlana</b>	Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako elkarlana eta lankidetzak lehenesten ditugu.
<b>Malgutasuna</b>	Zerbitzu malgua gara eta egoera bakoitzari egokitzeko gaitasuna dugu.
<b>Aukera berdintasuna</b>	Pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzeko lan egiten dugu, aniztasuna modu eraginkorrean kudeatuz.
<b>Partaidetza</b>	Haur, nerabe eta gazteak euren garapenaren subjektu aktibo izatea sustatzen dugu.
<b>Nortasun propioa</b>	Haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa nortasun propioa duten bizitzako etapa gisa ulertzen ditugu.
<b>Berrikuntza eta sormena</b>	Haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko berrikuntza eta sormena erabiltzen ditugu.

## 4.2 Ekintza-plana

Gazteria Saileko plana lau erronkatan banatzen da.

ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOA, ZEHATZAK ETA LAN ILDOAK
<b>1. ERRONKA. Lantalde sendoa izatea</b>	Helburu estrategikoak: 2 Helburu zehatzak: 6 Lan-ildoak: 11
<b>2. ERRONKA. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartzea</b>	Helburu estrategikoak: 3 Helburu zehatzak: 7 Lan-ildoak: 28
<b>3. ERRONKA. Zeharkakotasun kultura sendotzea</b>	Helburu estrategikoak: 3 Helburu zehatzak: 6 Lan-ildoak: 9
<b>4. ERRONKA. Gazteria Sailaren posizionamendua indartzea</b>	Helburu estrategikoak: 2 Helburu zehatzak: 4 Lan-ildoak: 6

Lehen erronkak barrura begiratzea eskatzen du, hau da, begirada Gazteria Saileko lantaldean jartzea. Bigarren erronkak berriz, Gazteria Sailaren lan-jardueran jartzen du fokua, haur, nerabe eta gazteen sustapena erdigunean jarriz. Hirugarren eta laugarren erronkek aldiz, Gazteria Sailaren lan-jarduera sendotu eta eragin-eremua zabaltzeko zeharkakotasun kultural eta posizionamenduan jartzen dute indarra.

## 4.3 Erronkak

### 1 ERRONKA - LANTALDE SENDOA IZATEA

Egun Gazteriako lantaldea zortzi lagunez osatuta dago. Egonkortze bidean pausoak eman dira, izan ere 2024an lantaldeko gehiengoak lanpostua egonkortu zuen. Dena den lanpostu bat osatu gabe dago, teknikarietako batek atalburutza hartu zuenetik.

Taldearen antolaketan eta koordinazioan hainbat aldaketa eta egokitzapen egin beharra identifikatzen da, horregatik, lankideen eginkizunak errebisatzea eta koordinazio egiturak eta bideak berraztertzea eta dinamika berriak integratzea jaso da planean.

Haur, nerabe eta gazteekiko tratu onaren eta ingurune seguruen politika garatuko dugu. Eta zentzu horretan, ezinbestekoa da lantaldean ere ongizatea eta tratu ona sustatzea. Zentzu honetan, batetik lantaldea sendotzeko estrategian lankideen garapenean lanean jarraituko dugu. Eta bestetik, lankideen zaintza lehenetsi dugu, eta horretarako gure la eremua ingurune seguru bilakatzeko estrategiak jaso ditugu.

Donostiako Udaleko Gazteria Sailaren Plana 2025-2027

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA		
					2025	2026	2027
1. ERRONKA: Lantaldea	1.1. Gazteria Saileko antolaketa-eredua sendotu	1.1.1. Talde izaera indartu	1.1.1.1. Gazteria Sailaren egitura eta antolaketa zehaztu	Lankideen eginkizunak errebisatu eta antolaketa ereduak egokitu behar diren arabera	X	X	X
				Giza baliabideen beharrak identifikatu, eskaerak prestatu eta bideratu	X	X	X
			1.1.1.2. Lankidetzaren lana sustatu	Koordinazio egiturak eta bideak berraztertu eta dinamika berriak integratu	X	X	X
		1.1.2. Gazteria Saileko kudeaketan eragin	1.1.2.1. Urteko kudeaketa-plana prestatu, gauzatu eta ebaluatu	Urteroko kudeaketa planak diseinatu, gauzatu eta ebaluatu	X	X	X
				2025-2027 Plana ebaluatu			X
		1.1.2.2. 2028-2031 Plan Estrategikoa diseinatu	2028-2031 Plan Estrategikoa diseinatu			X	
			Lankideen arteko kokreazioarako espazioak sortu	X	X	X	
		1.1.3. Berrikuntza sustatu	1.1.3.1. Lan egiteko metodologiak berrikusi	Zerbitzu eta programen hobekuntzarako saiok egin	X	X	X
	Informazioaren transmisio eraginkorra landu: Tresna digitala zehaztu eta inplementatu			X	X	X	
	1.1.4. Barne-komunikazioa hobetu	1.1.4.1. Gazteria Saileko barne komunikazio plana abiatu	Informazioaren transmisio eraginkorra landu: Tresna digitala zehaztu eta inplementatu	X	X	X	
	1.2. Ongizatea eta tratua sustatu	1.2.1. Lankide gaituak garatu	1.2.1.1. Gazteria Saileko urteko trebakuntza-plana garatu	Donostiako Udaleko urteroko trebakuntza-planak elikatu, lankideen interesak eta erakundearen kontuan hartuta	X	X	X
				Urteroko Kanpo-trebakuntza aukerak identifikatu	X	X	X
				Gazteria Saileko urteroko trebakuntza-plana garatu	X	X	X
		1.2.2. Lankideak zaintzea	1.2.2.1. Laneko estresa prebenitzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzea	Proiektuak kudeatzeko tresnak ezartzea	X	X	X
				Sailaren Konpromisoa zehaztu, udaleko jokabide-kodearen arabera	X		
				Langileek beren kezak adierazteko bideak ezartzea	X	X	X
Langile berriei zuzendutako harrera plana egin				X			
1.2.2.4. Kide izatearen eta talde-lanaren zentzua sustatzea				Lankideen arteko momentu informalek bilatu	X	X	X

## 2 ERRONKA - HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENA

Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politikak definitzerako garaian euren beharrak, nahiak eta interesak ezagutzea ezinbesteko baldintza da. Are gehiago, haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik subjektu aktibo izatera igaro beharra identifikatu da eta bide honetan pausuak eman diren arren, bide honetan sakontzen jarraituko dugu.

Testuinguru honetan, eta aurreko planari jarraipena emanez, bi helburu ezarri dira. Batetik, haur, nerabe eta gazteen sustapen arloko behaketa egitea eta horretarako haur, nerabe eta gazteen errealitatea ezagutzea eta euren egoeraren gaineko diagnostiko bat egingo da.

Eta bestetik, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku-hartzean jarri da fokua. Zehazki, Haurren garapenean eta ongizatean eragitea; Nerabeen ongizatean, autonomian eta harremanen kudeaketan eragitea; Gazteen ahalduntzean eta herritartasunean eragitea; Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea babestu eta sustatzea, erantzunkidetasun partekatua oinarri; eta haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programak egonkortu eta indartzea.

Erronka honetan, helburu berri bat jaso dugu. Tratu onaren politika sustatzearen helburua.

Haur, nerabe eta gazteekiko tratu onaren politika garatzea dugu lehentasunezko helburu.

Donostiako Gazteriak, 0 eta 30 urte bitarteko Donostiako haurren, nerabeen eta gazteen garapen integralean funtsezko laguntzaile eta erreferentziala den aldetik eta haien eskubideen bermatzaile gisa, konpromisoa hartzen du haurren, nerabeen eta gazteen ongizatearen eta tratu onaren printzipioen inguruko ekintza, programa eta ekimen guztiak egituratuko dituen politika propioa garatzeko.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
					2025	2026	2027	
2. ERRONKA: Haur, Nerabe eta Gazteen sustapena	2.1. Haur, nerabe eta gazteen sustapen- arloko behaketa egin	2.1.1. Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatzea eta beharrak antzeman	2.1.1.1. Haur, nerabe eta gazteei eragiten dieten arau-esparruen azterketa egin	Haur, nerabe eta gazteei eragiten dieten arau-esparruak aplikatu, sustapen lan eremuan.	X	X	X	
			2.1.1.2. Donostiako haur, nerabe eta gazteen beharren analisia egin	Donostiako haur, nerabe eta gazteen diagnostikoa egin		X	X	
			2.1.1.3. Udalak bere sail guztietatik, haur, nerabe eta gazteentzako egiten duen eskaintza aztertzera eta baloratzea	Udalak haur, nerabe eta gazteentzako duen aisialdiko eskaintzaren inguruko azterketa egin		X	X	
			2.1.1.4. Gazteria Saitetik sustatutako ekimenen inpaktua neurtu	Ebaluazioak garatu	X	X	X	
	2.2. Tratu onaren politika sustatu	2.2.1. Haurren, nerabeen eta gazteen aurkako indarkeria detektatzeko, esku hartzeko eta prebenitzeko jardun jarraibideak ezarri	2.2.1.1. Ingurune seguruak sortzen dituzten espazioak eta estrategiak diseinatu		Sailaren Konpromisoa zehaztu eta ekimen bakoitzean erreferentia izango den jokabide-kodea ezarri, sozializatu eta inplementatu	X		
					Falta diren zerbitzu eta programetako jarraibideak diseinatu, sozializatu eta inplementatu	X		
					Zerbitzuen protokoloak errebisatu	X	X	X
					Gaztematikako ingurune seguruaren lan taldean parte hartu	X		
					Gaztematikako lan taldetik ateratakoa inplementatu	X		
					Haurren, nerabeen eta gazteen artean indarkeriarik gabeko komunikazioa eta tratu onaren kultura sustatzen duten espazio eta jarduera zehatzen sorrera bultzatzea	X	X	X
				Zerbitzuetatik aholkularitza batzordeetan parte hartu	X	X	X	
				Hezitzaileek prebentzio goiztiarraren lan saioetan parte hartu	X	X	X	
				2.2.1.2. Esku hartze goiztiarra programan parte hartu	Hezitzaileek prebentzio goiztiarraren lan saioetan parte hartu	X	X	X
				2.2.1.3. Tratu onaren politikan sentsibilizatu	Formazioa eskaini	X	X	
2. ERRONKA: Haur, Nerabe eta Gazteen sustapena	2.3. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartu	2.3.1. Haurren garapenean eta ongizatean eragin	2.3.1.1. Gurasotasun positiboa eta prebentzioa sustatzeko bideak landu eta lagundu	"0-5 urte: Haurren ongizatea oinarri" programa garatu	X	X	X	
				Egihurgune-ren egitasmoaren jarraipena egin + lagapenaren luzapena gauzatu	X	X	X	
				Lankidetzeta guraso taldeekin (0-5 urte)	X	X	X	
				Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala oinarri duten hitzaldi/tailerak diseinatu eta gauzatu TREBA GURASOAK	X	X	X	
				Haurtxokoetan Familiarekin jolasean programa garatu	X	X	X	
				Osasun Sailarekin eta DYaren eskutik Bihotz Biriken Bizkortze tailerrak eskaini Haurtxokoetan	X	X	X	
				Minbiziaren aurka Gipuzkoan elkartarekin hitzarmena berritu eta programa Haurtxokoetan garatu	X	X	X	
				Haurtxokoetan Osasunbide programaren bitartez ongizatea sustatu (hainbat tailer, jolas, etab.)	X	X	X	
				Egoeren azterketa egin, zerbitzuak denontzat izateko	X	X	X	
				Ongi etorri proiektuarekin elkarlanean aritu	X	X	X	
				Haurtxokoetan behar bereziak dituzten haurrentzako eskaintza egokitzen joan	X	X	X	
				2.3.1.3. Haurren aukera berdintasuna bultzatu	Haurtxokotik eta Etxarrietik Martuteneko Harrera Planaren prozesuan parte hartu	X		
					Giza eskubideak, aniztasuna, elkarbizitza, integrazioa eta natura-inguruarekiko errespetuaren giza balioak barnertatzeko tailer eta ekintzak gauzatu Haurtxokoetan.	X	X	X
				2.3.1.4. Haurren sexu heziketa landu	Haurrekin eta gurasoekin programa bat diseinatu eta garatu Haurtxokoetan	X		
				2.3.1.5. Haurrei zuzenduriko aisialdi-eskaintza indartu	Gabonak Zuretzat programa kudeatu	X	X	X
	Zerbitzuetatik haurrentzako aisialdiko eskaintza diseinatu.	X	X	X				
2.3.2. Nerabeen ongizatean, autonomian eta harremanen kudeaketan eragin	2.3.2.1. Nerabeen heldu erreferenteen laguntza eta kapazitatea sustatu	Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala oinarri duten hitzaldi/tailerak diseinatu eta gauzatu TREBA GURASOAK	X	X	X			
		Indarkeria matxista nerabezaroan Jardunaldia antolatzea	X	X	X			
		Egoeren azterketa egin, zerbitzuak denontzat izateko	X	X	X			
		Gaztelekuetan behar bereziak dituzten nerabeentzako eskaintza egokitzen joan	X	X	X			
		2.3.2.2. Nerabeen aukera berdintasuna bultzatu	Gaztelekuetik Martuteneko Harrera Planaren prozesuan parte hartu	X				
			Giza eskubideak, aniztasuna, elkarbizitza, integrazioa eta natura-inguruarekiko errespetuaren giza balioak barnertatzeko tailer eta ekintzak gauzatu Gaztelekuetan	X	X	X		
2.3.2.3. Nerabeei zuzenduriko aisialdi-eskaintza indartu	Gabonak Zuretzat programaren eskaintza indartu	X	X	X				
2.3.2.4. Nerabeen ohitura osasungarriak, eta kontsumo arduratsua bultzatu eta arrisku egoeren kudeaketan hezi	Bizi ohitura osasuntsuen sustapenerako eta arriskuen prebentziorako tailer eta ekintzak gauzatu Gaztelekuetan.	X	X	X				
	Beldur Barik programan parte hartu Gaztelekuetatik.	X	X	X				

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA		
					2025	2026	2027
			2.3.2.5. Nerabeen ongizate emozionala eta osasun afektibo sexuala sustatu, eta harremanen kudeaketa landu	Emozioen eta harreman afektibo-sexualen kudeaketa lagunduko dieten tailer eta ekintzak gauzatu Gaztelekuetan. Hala nola, gizarte-trebetasunak eta elkarren arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituztenak.	X	X	X
				Treba nerabeak ikastaroak burutu	X	X	X
			2.3.2.6. Nerabeen ahalduntzea eta autonomia bultzatu	Treba nerabeak ikastaroak burutu	X	X	X
				Nerabeen ekintzailetasuna eta eskuhartze komunitarioa sustatu, Gaztelekuetako talde proiektuen bitartez.	X	X	X
				Nerabezartotik gaztarorako trantsizioa errazteko bideak landu (16-22 urte)	X	X	X
					X	X	X
2. ERRONKA: Haur, Nerabe eta Gazteen sustapena	2.3. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartu	2.3.3. Gazteen ahalduntzean eta herritartasunean eragin	2.3.3.1. Gazteen ongizatea sustatu, osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala landu	Beldur Barik tokiko lehiaketa antolatu	X	X	X
				Kontadores Gazte Zentroko laborategiak eta eszena diseinatu, gauzatu eta ebaluatu	X	X	X
				Komunitatea sustatu eta bakardadea ekiditeko ekintza ezberdinak eraiki	X	X	X
				Kontadoresetik	X	X	X
			2.3.3.2. Gazteen berrikuntza eta sormena sustatu	Kontadores Gazte Zentroko ildo morea landu eta bideratu	X	X	X
				Gazteen Antzerki Topaketa antolatu	X	X	X
				Konplize jaialdia antolatu Kontadoresen	X	X	X
				Kontadoresen jasotzen diren kultura/laborategi proposamenak baloratu eta aproposak direnak programatu.	X	X	X
				Kontadoresetik gazte sortzaileen proposamenak bultzatu, sozializatzeko espazioak identifikatu eta elkarlana sustatu	X	X	X
				Fantasiako eta Beldurrezko zinemaren astearen baitan gazteen epaimahai osatu eta kudeatu.	X	X	X
				Adierazpen artistikoak eta sorkuntza prozesuak bultzatu Kontadores-eko laborategien bidez.	X	X	X
				Sorkuntza prozesuak garatzeko Kontadores.eko gela lagapena zerbitzua eskuragarri jarri.	X	X	X
		2.3.3.3. Gazteen ahalduntzea, emantzipazioa eta autonomia sustatu	Donostiako gazteen ikasketa, interesgune, sormen eta abarrekin koordinazioa eta talde proiektuak sustatzea	X	X	X	
			GAZ, Emantzipaziorako Zerbitzuaren inguruko lanketa egin.	X	X	X	
			Gazteria Arloko Euskal estrategiaren lanketa burutu				
			Martx Up!-eko ekimenak gauzatu eta urteroko deialdia diseinatu eta bideratu	X	X	X	
		2.3.3.4. Donostiako Udalaren eta gazteen arteko harremana landu	Gazteen inizatiba berrietan lagundu, bidelagun izan, baliabideak eman	X	X	X	
			EGKRekin batera, emantzipazioaren ikuspuntua zabaltzeko bideak	X			
			ahalduntzeko baliabideak eskaini.				
			TREBA GAZTEAK ikastaroak burutu	X	X	X	
		2.3.4. Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea babestu eta sustatu, erantzunkidetasun partekatua oinarri	2.3.4.1. Haur, nerabe eta gazteek parte hartzeko espazio eta aukerak aztertu eta bideratu	Udaleko bestelako sailen proposamenetan gazteen parte hartzea bideratu: Belaunaldi arteko egitasmoetan, Harrotasunaren Egunean, Europa Saria egitasmoan.	X	X	X
				Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan haurren eta nerabeen iritzia jaso	X	X	X
				Kontadores Gazte Zentroko gazteen iritzia jaso	X	X	X
				Ekialdeko Barrutiko Haurren parte hartze organoaren jarraipena bideratu	X	X	X
2.3.4.2. Garapen komunitarioko prozesuetan haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatu	Gazteen artean ideiak trukatzeko eta adostasunak eraikitzeko bideak aztertu			X			
	Erlauntza egitasmoan parte hartzen jarraitu. Martxan dagoen auzo ezberdinetan.		X	X	X		
	Komunitatean sortzen diren ekimenez baliatu, haurren, nerabeen eta gazteen parte hartzea sustatzeko.		X	X	X		
	Tratu On Martutene egitasmoan parte hartzen jarraitu.		X	X	X		
2.3.4.3. Belaunaldi arteko ekimenak sustatu	Plus 55 zerbitzuarekin elkarlanean ekintzak antolatu Haurtxoko eta Gaztelekuetan		X	X	X		
	Donostia Lagunkoiarekin sortzen diren elkarlanetan parte hartu		X	X	X		
2.3.4.4. Haur, nerabe eta gazteen ingurumen-jarrera arduratsuak sustatu	Haurtxoko eta Gaztelekuetan ingurumen programa berri bat sortu eta garatu		X	X	X		
			X	X	X		
2.3.5.1. Zerbitzu eta programetako giza baliabideak eta harreman-sareak kudeatu eta ebaluatu			Praktiketako ikasleen eskaerak bideratu eta hauen jarraipena eta tutoritza lanak egin	X	X	X	
			Haurtxokoen eta Gaztelekuen kontratu berriaren kudeaketa bideratu	X			
			Haurtxokoen eta Gaztelekuen jarraipena egin (plangintza, exekuzioa, ebaluazioa) eta zerbitzuak kudeatzen dituen entitatearekin koordinatu	X	X	X	
			Kontadoreseko kontratu berriaren kudeaketa bideratu	X			
			Kontadores Gazte Zentroaren jarraipena egin (plangintza, exekuzioa, ebaluazioa) eta zerbitzua kudeatzen duen entitatearekin koordinatu	X	X	X	
			Etzarrieneren jarraipena egin	X	X	X	

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA				
					2025	2026	2027		
2. ERRONKA: Haur, Nerabe eta Gazteen sustapena	2.3. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartu	2.3.5. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programak egonkortu eta indartu	2.3.5.2. Zerbitzu eta programetako baliabide ekonomikoak kudeatu eta jarraipena egin	Parte hartze organoaren lizitazioa bideratu	X				
				Urteroko aurrekontua kudeatu, jarraipena egin	X	X	X		
				Hurrengo urtearen aurrekontuaren aurreikuspena egin	X	X	X		
				Dirulaguntza konkurrenteak: aurreko urteko zuriketak kudeatu eta urteko deialdia bideratu	X	X	X		
				Roteta Berri eta Txomin Enea-ren dirulaguntza zuzenak kudeatu	X	X	X		
				Gabonak Zuretzat programaren dirulaguntzak kudeatu	X	X	X		
				Donostia Gazteriak beste erakundeetara bideratzen dituen dirulaguntza eskaerak kudeatu	X	X	X		
				Donostia Gazteriaren azpiegituren etengabeko egokitzapena eta hobekuntza bideratu	X	X	X		
				Zerbitzuen hobekuntzak bideratu	X	X	X		
				Parte Zaharra Haurtxokoa ireki	X				
			Udal Haurtxoko eta Gazteleku berriak irekitzeko aukerak aztertu	X	X	X			
			Lagatutako lokalen mahaian parte hartu	X	X	X			
			Lokal eskaeren azterketa egin	X	X	X			
						2.3.5.3. Gazteria Sailaren zerbitzuak eta azpiegiturak kudeatu eta egokitzapenak aztertu			

### 3 ERRONKA - ZEHARKAKOTASUN KULTURA

Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu beharreko aspektu bat da. Erronka honetan, garrantzia berezia ematen diogu, haur, nerabe eta gazteen sustapenaren zeharkakotasun izaeraz jabetzea, eta horretarako plan honetan esfortzu berezia egingo du Donostiako Udaleko gainerako sailak eta erakundeak haur, nerabe eta gazteen sustapenean sentsibilizatzen.

Beharrezkoak dira ere zeharkako gainerako politikak, izan, berdintasuna, gizarte ongizatea, euskara, osasuna, ingurumena, partaidetza eta abar haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politiketan txertatzea. Zeharkakotasun-politiken alorrean hainbat lanketa egiten diren arren, Donostiako udaleko sail eta erakunde desberdinekin lankidetzak egonkortzea eta berriak sortzea jaso da.

Eta Donostiako Udaletik haratago, Gipuzkoan haur, nerabe eta gazteen sustapenean lanean diharduten eragile eta erakundeekin dagoeneko ditugun lankidetzak sendotzea da asmoa. Bide honek haur, nerabe eta gazteen errealitatera hurbiltzeko ezagutza zabalagoa eta estrategia berriak eskaini ditzake, esku hartzea sendotzearekin batera.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
					2025	2026	2027	
3. ERRONKA: Zeharkakotasun-kultura	3.1. Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu	3.1.1. Haur, nerabe eta gazteen sustapenaren zeharkakotasun izaeraz jabetu	3.1.1.1. Donostiako Udaleko gainerako sailak eta erakundeak haur, nerabe eta gazteen sustapenean sentibilizatu	Donostiako Udaleko gainerako sailei eta erakundeei haur, nerabe eta gazteen sustapena barne-bitzeko trebakuntza diseinatu eta garatu	X	X		
				Sustapenean sentibilizatzeko pilulak sortu eta bideratu		X	X	
				Eredugarriak diren esperientzia batzuk ezagutu		X		
			3.1.1.2. Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez lantzen duten ereduak ezagutu (beste udalerri batzuk...) eta estrategiak landu	Estrategia zirriborro bat idatzi			X	
		3.1.2. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zeharkakotasun politikak garatu	3.1.2.1. Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren zerbitzu barneko lankidetzak egonkortu	Sail ezberdinen arteko ezagutza bultzatzeko saio bat antolatzeke proposamena egin	X			
				Martxan dauden elkarlanak mantendu eta sistematizatu	X	X	X	
	3.1.2.2. Donostiako Udaleko sail eta erakunde desberdinekin lankidetzak egonkortu eta berriak sortu		Donostiako Udaleko sail eta erakunde desberdinekin helburu partekatua identifikatu eta hauek garatzeko ekintzak zehaztu	X	X	X		
	3.2. Donostiako Udaleko zeharkako politikak sustatu	3.2.1. Gazteria Sailak zeharkako politiketan parte hartu		Zeharkako planetan eta honek dakartzan foroetan parte hartu	X	X	X	
			3.2.1.1. Zeharkako politiken jarraipena egin eta ekarpenak egin	Zeharkako gaiak Gazteria Saileko planifikazioan txertatzeko moduak berrikusi eta aurrera eraman	X	X	X	
	3.3. Lankidetzak eraiki, haur, nerabe eta gazteen sustapenak duen zeharkakotasun-izaera kontutan hartuta	3.3.1. Gazteria alorreko eragileekin lankidetzak finkatu	3.3.1.1. Gaztematika sareko parte hartzea finkatu	Gaztematika sarean parte hartu	X	X	X	
				Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlana sendotu	Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean jarraitu	X	X	X
				3.3.1.2. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlana sendotu	Entitate eta eragile ezberdinekin koordinazio moduak aztertu eta dagokionean egokitu	X	X	X
3.3.2. Zerbitzu eta programetako entitate eta eragileekin elkarlanak indartu		3.3.2.1. Zerbitzu eta programetako entitate eta eragileekin koordinazio bideak berrikusi eta elkarlana eta hobekuntza sustatu	Zerbitzu eta programen hobekuntzak eta berrikuntzak garatu	X	X	X		
		3.3.3. Beste entitate, erakunde edo eragileekin harreman estrategiko berriak ezarri	3.3.3.1. Haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko entitate, erakunde edo eragileak identifikatu eta elkarlanak abiatu	Haur, nerabe eta gazteen egoeraren etengabeko jarraipena	X	X	X	

#### 4 ERRONKA - POSIZIONAMENDUA

Gazteria Sailaren posizionamendu politikoa indartzea ezarri da helburu gisa. Indarrak Gazteriako Batzorde Politikoa berreskuratzen eta Donostiako Udalbatza osatzen duten udal-ordezkariak haur, nerabe eta gazteen sustapenean sentibilizatzen jarriko dira. Azken urteetan haur, nerabe eta gazteengan eragina duten arau-esparruak aprobetxatuta.

Posizionamenduan indartzeko ere, komunikazio estrategian aurreko planean abian jarri diren hainbat lanketekin jarraitzea proposatzen da, betiere, subjektu hartzaile diren haur, nerabe eta gazteengana iristea helburu.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	HELBURU ZEHATZA	LAN-ILDOA	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
					2025	2026	2027	
4. ERRONKA: Posizionamendua	4.1. Gazteria Sailaren posizionamendu politikoa indartu	4.1.1. Haur, nerabe eta gazteen sustapena agenda politikokoan kokatu	4.1.1.1. Haur, nerabe eta gazteengan eragina duten arau-esparruen azterketa egin	Gazteriaren Euskal Legea aztertu	X			
				Haurren legea aztertu	X			
			4.1.1.2. Gazteriako Batzorde Politikoa berreskuratu	Batzorde Politikoa sortzeko proposamena landu		X		
		4.1.2. Gazteria Sailaren beharrei erantzuneko baliabideak indartu	4.1.1.3. Donostiako Udalbatza osatzen duten udal-ordezkariei haur, nerabe eta gazteen sustapenean sentsibilizatu	Donostiako Udalbatza osatzen duten udal ordezkariei haur, nerabe eta gazteen sustapena barne-biltzeko trebakuntza diseinatu eta garatu	X	X		
				Gazteria Saileko 3 urteetako aurrekontuak aztertu			X	
			4.1.2.1. Gazteria Saileko aurrekontuan Plan Estrategikotik eratorritako ekintzen garapenerako partidak integratu	Gazteria Saileko urtez urteetako aurrekontuetan Plan Estrategikotik eratorritako ekintzen garapenerako partidak integratu	X	X	X	
	4.2. Gazteria Saila Donostiako haur, nerabe eta gazteentzat erreferente izan	4.2.1. Gazteria Sailaren marka-posizionamendua landu	4.2.1.1. Komunikazio estrategiatik eratorritako ekintza-plana garatu		Programa, ekintza eta zerbitzu bakoitzaren komunikazioa bideratu	X	X	X
					2025-2027 Komunikazio plana eguneratu	X		
					Urtez urtekako komunikazio planeko ekintzak zehaztu, garatu eta obalatu	X	X	X
				Webgune berrira egokitzeko lanak burutu	X			
				Gazteriako agenda bideratzeko aukerak aztertu	X			
				Zabalkunderako egokitutako materialak, edukiak sortu	X	X	X	
	4.2.2. Donostiako haur, nerabe eta gazteentzako erreferentzialtasunean sakondu	4.2.2.1. Haur, nerabe eta gazteen eskubideak eta betebeharrak bisibilizatu eta horien gaineko sentsibilizazioa egin	Sentsibilizazio pilulak sortu eta zabaldu		X	X		

## 4.4 Ebaluazioa

Planaren ebaluazioaren bidez ekintza-planaren ezarpen-maila ezagutu ahalko dugu, erronkek lorpenerako jasotako helburu estrategiko, lan-ildo eta ekintzekin zerikusia duten arazoak antzeman ahalko ditugu eta etorkizunera begira fokua non jarri erabaki edo lehenesten lagunduko digu.

Horretarako, Gazteria Sailaren 2025-2027 plana kudeaketa-planen bidez antolatu eta kudeatuko da.

1. Planaren indarraldiko urte bakoitzean urteko **kudeaketa-planak prestatuko** dira eta urte horretan bete beharreko helburua, lehenetsiko beharreko lan-ildoak eta aurrera eraman beharreko **ekintzak zehaztuko** dira.
2. Ekaina/uztaila bitartean, Gazteria lantaldeak urteko kudeaketa-planaren tarteko **balorazioa** egingo du.
3. Urte amaieran, Gazteria lantaldeak urteko kudeaketa-planaren balorazioa egingo du eta **hurrengo urteko kudeaketa-plana finkatuko** du.

Halaber, planaren jarraipen estua egiteko jarraipen-trena sortu dugu. Jarraipen-tresnak erronkak, helburu estrategikoak, lan-ildoak, ekintzak, epeak, arduradunak, aurrekontua. jasotzen ditu eta planaren garapenaren jarraipen orokorra egitea erraztu nahi du.

1. Jarraipen-tresna osatzeko ardura nagusia planaren arduradunarena da, betiere, Gazteria lantaldearen berrikuste eta jarraipenarekin.
2. Era berean, lankide bakoitzak bere ardurapeko lan-ildo eta ekintzen jarraipena egin ahalko du, urtez urteko plangintza gainbegiratzearekin batera.
3. Hortaz, planaren jarraipen orokorra noiz eta nola egin adostuko da.
4. Amaitzeko, 2027ko lehen seihilekoan planaren ebaluazio orokorrarekin hasiko gara eta horretarako kontuan hartuko dira urtez urteko kudeaketa-planak eta hauen balorazio-txostenak eta jarraipen-tresna.